



Elgoibar Arreiturre B.H.I.

Arregitorre 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net
www.elgoibarbhi.net

ELGOIBAR ARREITURRE B.H.I. 2009/2010 IKASTURTEA



BATXILERREKO ESKAINTZA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Osasun zientziak

Zientzia eta teknika

Teknologia (zikloetarako)

HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Gizarte zientziak

Humanitateak

Aurrematrikulako datak:

Maiatzaren 4tik 8ra

**GURASOENTZAT BILERA IREKIA: Apirilaren 28an, 19:00etan
IKASLEENTZAT ORIENTAZIO BILERA: Apirilaren 29an, 16:00etan
MEKAKO ARETOAN**



Laster arte!

Zaila da zuk eskaini didazuna hitzez azaltzea. Zailagoa da, ordea, zuk eskainitakoarekin sentitu dudana orri zuri honetara 1.671 karaktereren konbinazioz azaleratzea.

Udaberri hasiberri haren goiz eguzkitsu hartan gerturatu nintzen zugana. Zure berri handirik izan gabe sartu nintzen zure barruan, aurreiritzirik gabe murgildu nintzen zure munduan. Lehen unetik liluratu ninduen zure magiaren gardentasuna ikusteak, zure giro hotzaren epeltasuna sentitzeak.

Zure karrika zabalen estuasunetan galtzeak badu zer bait berezia... Historiako mila pasarte ikusitakoak, eta halere, isil-isilik, geldi-geldi, etorkizuneko beste mila gauza ikusteko prest daudenak. Monumentu zaharrak kale berriztatuetan, eraikin berriztatuak auzo zaharretan, finean, zahar eta gazte, klasiko eta moderno, bizikidetzaren harmoniko jasangarri batean nahasirik.

Zure merkatuen iskanbila baketsuak, jendearen joan-etorri baketsuen iskanbilak, kolore, soinu eta doinu biziz apaintzen dute daukazun nortasun berezia.

Egunez argia bazara, gauzez ez da ilunagoa zure distira. Terrazetako berriketaldi lasaiak tabernetako giro alaiakin nahasten dira ilargiaren begiradapean. Dena bertatik bertara. Errespetuz, parez pare.

Ordu txikitik murgilduta ere, baduzu zer eskaini, baduzu zer eman. Jende askoren bizileku eta bizibide diren bizi eta kolorez

betetako etxe horiek, goizalderaino irekita dauden lokal ilun baina abegikor horiek eta edozein kale kantoiko epeltasuna. Gazte eta zahar askoren elkargune bihurtzen dira guztiak. Pauso batean mila sentsazio. Metro batean mila kilometro.

Zure jendearen emankortasuna ere ez da ahazterraza, nire barnean eramango ditut luzerako. Goizaldean Metroan ezagututako koadrila haren adeitasuna, errumaniar bikote haren irribarrea, Deabru zuriaren zoro puntu zentzuduna, eta nola ez, gure gidari izan denaren abegikortasuna exenplu. Zugan gutxi utzi dut, baina zugandik asko daramat.

Danke schön, Berlin!!

Joseba Elustondo




"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**"Zugan gutxi utzi dut, baina zugandik asko daramat.
Danke schön, Berlin!"**

Blogari izan nahi?

11 blogari ditugu dagoeneko.

Zuk ere zure bloga nahi baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan: elgoibarren.net@elgoibarkoizarra.com helbidean.



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net





toti martinez de lezea

Toti Martínez de Lezea idazle ezagunak hitzaldia eskaini du aste honetan Udal Liburutegian. Gasteiztarrak nobela historikoak idazten ditu batez ere. Euskal Herriko historiari buruzko nobelak idazteagatik egin da ezagun, baina umeentzako hainbat liburu ere argitaratu ditu. Berandu hasi bazen ere, hogeitaz liburutik gora idatzi ditu Larrabetzun bizi den emakume honek. 60 urte egin berri ditu, eta idazteko momentu bikainean dagoela azaldu du.

Ainhoa Andonegi

“Liburuak seme-alaben modukoak dira, ezin dut bat aukeratu”



Noiz eta nola hasi zinen idazten?

Berandu hasi nintzen idazten. Apustu baten ondorioa izan zen nire lehenengo liburu. Lagun batek esan zidan ez nintzela liburu bat idazteko gai, eta nik baietz esan nion. Ez nuen Himalayara joango nintzela jokatu, hori badakit ezin dudala. *La Abadesa* liburuak izan zen apustu haren ondorioa. Nire lagunari eta neure buruari ere liburuak idazteko gai nintzela demostratzeaz gain, gustatu egin zitzaidan. Bata bestearen atzetik etorri ziren ondoren, eta dagoeneko 25 liburu idatzi ditut.

Ez zen, baina, *La Abadesa* izan argitaratu zenuen lehenengo liburuak...

Ez, idatzi eta gorde egin nuen, ez nuen inora bidali. Argitaratu zidaten estreinako liburuak *La calle de la judería* izan zen.

Zure liburuen artean bat aukeratu behar izango bazenu?

Liburuak seme-alaben modukoak dira, ezin dut bat aukeratu. Denak berdin maite ditut, baina batzuk poztasun handiagoak eman dizkidate. Kuttunenak gehien irakurri direnak dira. *La calle de la judería* asko maite dut argitaratu zidaten lehenengoa izan zelako eta oroitzapen oso onak ditut.

Nobela historikoa egiten duzu batez ere, baina beste genero batzuk ere landu izan dituzu.

Bai, hala da. Adituek nobela historikoaren zakuan sartu naute, baina horrek ez du esan nahi hori bakarrik egiten dudunik. Iaz idatzi nuen haurrentzako lehenengo liburuak, eta nire biloba da protagonista. Eskerrak bakarrik daukadan! Gazteentzako liburuak ere baditut, etxekoandrentzako beste bat, saiakerak... Nobela historikoa beti existitu izan da, baina XX. mendera arte narrazioa deitzen zioten. Orain denari ipini diote etiketa: nobela beltza, poliziakoa, historikoa...



Zein generotan idazten duzu gusturago?

Denetan sentitzen naiz gustura. Idazle batek denetik idazteko gaitasuna izan behar du, nire ustez. Genero bakarra lantzen duen idazlea nahiko mugatua dela iruditzen zait. Gai bat bestea baino gehiago gustatzea normala da, eta niri nobela historikoa gustatzen zait gehien.

Nobela historikoak idazteko dokumentazio lan handia egin behar izaten duzu?

Ikaragarria. Asko irakurri behar izaten dut. Nobela historikoak idazteko oso garrantzitsua da dokumentazioa. Historia liburu asko kontsultatzen ditut, eta Interneten ere asko ibiltzen naiz. Eta horrez gain, herrietan beti dago historiari buruz asko dakien norbait, eta jende horrekin ere asko hitz egiten dut. Denbora gehiago ematen dut aurrelana prestatzen, liburu bera idazten baino.

Zure liburuetan zenbat da egia eta zenbat fikzioa?

Hori erantzutea zaila da. Batzuetan gehiago eta besteetan gutxiago. Nire helburua horixe da, gainera, irakurleari zalantza hori sortzea. Azken batean, istorio bat asmatzen dut, eta gustuko dudana garai batean kokatzen dut. Horretarako garrantzitsua da garai horri buruzko informazioa edukitzea, garai hartan zegoen egoerak nire pertsonaiengan eragina izango duelako. Asmatutako gertaerak ere ondo asmatutakoak izan behar dute, ezin da edozer asmatu.

Denboraren makina izango bazenu, zein garaitara egingo zenuke bidaia?

Edozein garai da ona bidaiatzeko, baina erataroa izugarri gustatzen zait. Hala ere, Jesukristoren garaira joango nintzateke, ea esaten duten guztia egia den jakiteko. Etorkizunera ez nintzateke joango, eta iraganera ere joanetorriko bidaia azkarra egingo nuke. Oso ondo ohituta nago gaur egungo erosotasunera: eguneroko dutxa, ohe biguna, autoa... Hori guztia kenduta bizitzea zaila da. Beraz, joan egingo nintzateke, nire liburue-

tan zeozer asmatu dudana ikusi eta buelta.

Irakurleek nobela historikoa gustuko dute, baina kritikoez ez dute berdin baloratzen.

Ez diot garrantzi handirik ematen horri. Kritikoez ez dira nobela historikoak idazteko gai, eta ezin dute preziatu. Beste genero batzuk nahiago dituzte, baina niri berdin zait. Nobela historikoak ere idazle handiak eman ditu: Homero, Tolstoy, Shakespeare, Alejandro Dumas... Horien zakuan sartzen banaute, ni pozik!

Euskaraz ere argitaratu dituzu liburuak, baina ez dituzu zeuk idatzi...

Ez, gaztelaraz idazten dut hori delako nire ama hizkuntza. Ingeles eta frantses itzultzailea ere banaiz, baina ezingo nuke hizkuntza horietan libururik idatzi, ezta euskaraz ere. Kritikoez ez naute idazle euskalduntzat hartzen, baina ni euskalduna naiz. Nire liburu gehienak gaztelaraz eta euskaraz daude. Bakoitzak aukeratu dezala zein hizkuntzatan irakurri nahi dituen.

Zer egiten duzu zure astialdian?

Nire familiarekin egon, batez ere. Ez dut telebista askorik ikusten, eta asko irakurtzen dut. Lehen Larrabetzuko koroan abesten nuen, baina laga egin behar izan dut. Azkenaldian hitzaldi asko ematen ari naiz, eta ezin nintzen entseguetara joan. Gainera, asko hitz egiten dut, eta ahotsa ere ez daukat lehen bezain ondo. Igeri egitea ere gustuko dut, eta bere garaian Euskadi eta Nafarroako igeriketa txapelak izan nintzen. Garai bakoitzean egin nahi izan dudana egin dut.

60 urte egin berri dituzu. Idazteko adin oso ona dela diote. Zer uste duzu?

Idazle batek zeozer kontatzeko daukanean idatzi behar du. Akaso gazteek badute zer kontatu, baina 60 urterekin seguru askoz gehiago daukazula. Bizipenek esperientzia handia ematen dute. Izugarri gozatzen dut idazten, eta kontatzeko zeozer daukadan bitartean, idazten segituko dut.

Motz-motz

• Gustuko duzun idazle bat?

Ezingo nuke idazle bakarra aukeratu, ez zaizkidalako gustatzen idazle batek idatzi dituen liburu guztiak. Alejandro Dumasen *La reina Margot* edo Frank Baer-en *El puente de Alcantara* liburuak ditut gustuko.

• Pertsonaia historiko bat?

Akitaniako Leonor. Bere garaiko arau guztiak hautsi zituen, eta beti iruditu izan zait interesgarria arauak hausten dituen jendea.

• Biografia bat egitekotan, norena idatziko zenuke?

Akitaniako Leonorrena, baina asko idatzi dira, eta ez nuke ezer berrikerik esango. Egia esan, sekula ez dut pentsatu biografiak idazterik.

• Bizitzeko leku bat?

Euskal Herriko edozein leku. Nafarroa, Bizkaia, Iparraldea... denak ditut gustuko. Edozein leku da ona bizitzeko, baina nik hau ezagutzen dut, eta hau maite dut.

• Ezagutu nahiko zenukeen garaia?

Ertaro amaiera edo errenazimenduaren hasiera. Jesukristoren garaia ere bisitatuko nuke gustora.

• Zugarri eragin duen gertakari historikoren bat?

Historikoak bat ere ez. Gertakari pertsonaletan nire seme-alaben jaiotzak.

• Gustuko duzun jateko bat?

Oso txarra naiz jaten. Gatzatua ez-tiarekin, akaso.

• Abesti bat?

Benito Lertxundiren edozein abesti. Bere kantak entzuten idazten dut, izugarri inspiratzen nau.

• Pelikula bat?

Pelikula historikoak gustatzen zaizkit: *Todas las mañanas del mundo* edo *La Mision* gustuko ditut.

“Kontatzeko zeozer daukadan bitartean idazten jarraituko dut”

Tawasol elkarteak

nortasunari eutsi nahian

Abdelhak Amraoui marokoarrak Tawasol elkarteak sortu berri du, beste zortzi lagunekin batera. **Komunikazioa** esan nahi du *Tawasol* hitzak, eta horixe da elkartearen helburu nagusia, komunikazioa. Bi ikuspuntutatik landuko du komunikazioa Tawasol elkarteak: Batetik, atzerritarrak Euskal Herrira iristen direnean daukaten lan garrantzitsuena bertakoekin komunikatzea da, batez ere, lana topatu ahal izateko. Bestetik, atzerritarren seme-alaba asko Euskal Herrian jaiotzen dira, eta ez dute gurasoen hizkuntza ikasten. Tawasol elkarteko kideek arabiarrez hitz egiten eta irakurtzen erakusten diete euren seme-alabei. Udalak lokala utzi die, eta han biltzen dira, asteburuetan. Momentuz berrogei lagun inguru ditu elkarteak, eta atzerritar guztiei zabaldua dago.

Pauso garrantzitsua eman dute Elgoibarren bizi diren hainbat marokoarrek integrazioaren bidean. Udalaren laguntzaz, Tawasol elkarteak sortu berri dute, eta dagoeneko, berrogei lagun inguru bildu dira. Herrialde guztietako jendearentzako elkarteak da, baina momentuz gehienak marokoarrak dira. Hobe esanda, bereberek. Abdelhak-ek azaldu du eurak zirela Marokoko lehenengo bizilagunak, eta arabiarrek ondoren iritsi zirela: "Euskaldunen eta espainiarren

artean dagoen gatazka bera da geurea ere. Guk bereberek eta arabiarra hitz egiten ditugu", esan du Abdelhakek.

Udalak lokal bat laga dio elkarteari Plaza Txikian, eta bertan elkartzen dira asteburuetan.

Tawasol, komunikazioa

Bizilagun guztiarentzako da garrantzitsua komunikazioa, baina atzerritarrentzako, askoz gehiago, lana bilatzeko, batez ere. Tawa-

sol elkartearen biltzen dira euren esperientziak trukatu eta elkarri laguntzeko. Baina elkartearen oinarrian umeak daude. Hemen jaiotzen diren haurrek ez dituzte euren herrialdeko kultura, hizkuntza edota ohiturak ezagutzen, eta hori erakustea da elkartearen helburua. Umeei arabiar hizkuntzan hitz egiten eta idazten erakusten diete, eta euren kultura eta ohiturak zein diren. Baina hori guztia, Euskal Herriko legedia eta ohituretan barnetatzen ahalagintzen dira. Abdelhaken esanetan, "ez





ditugu gure ohiturak galdu nahi, baina Euskal Herriko kulturara ere moldatu beharra dauka-gu”.

Hala ere, euren erlijioak markatzen dituen jaiak ospatzen dituzte, kristauen ospakizunak alde batera lagata: “ez ditugu hemengo Gabonak edota Aste Santua ospatzen. Jai hartzen dugu, baina ospatu gabe. Guk geure ospakizunak ditugu, Ramadana esate baterako, eta horri eusten ahalegintzen gara”. Otoitz egitea ere euren ohituretako bat da, eta inguruko herrietako meskitetara joaten dira, Elgoibarren “oraindik” ez baitago horrelakorik, adierazi du.

Elgoibarren arazorik ez

Elgoibarren oso ondo hartu dituztela adierazi dute elkarteko kideek. Ez dute inolako arazorik eduki, eta gainera, elgoibartarrak oso jatorrak eta irekiak direla esan dute. Hala ere, badaki jende asko apur bat beldurtu egiten dela atzerritarrei buruz entzuten diren is-

torioekin. Zumaian, Endoian eta beste hainbat lekutan izan diren gatazken ondorioz, “atzerritar guztiok zaku berean sartzen gaituzte, baina denok ez gara berdinak”, aitortu du Abdelhak-ek. Ez du ulertzen adin txikiko marokoar horiek hartu duten jarrera: “Gure erlijioak eta kulturak hori guztia debekatu egiten du, guztiz kontrakoa erakusten digute, eta ezin dut egoera hori ulertu”.

Krisia

Gizartea jasaten ari den krisi egoerak min handia egin die atzerritarrei ere. Eraikuntzan egiten dute lan kanpotik etortzen diren gehienek, eta sektoreak izan duen gainbeheraren ondorioz, lanik gabe geratu dira asko. Esan dutenaren arabera, atzerritar asko euren herrialdeetara itzultzen hasi dira. Hala ere, Abdelhak baikor agertu da: “Ez dut inoiz hone-lako egoerarik ezagutu, baina emango diogu buelta. Itxaropena ezin da galdu, bestela ez dago aurrera egiterik”.

“Atzerritar guztiok zaku berean sartzen gaituzte, baina denok ez gara berdinak”

ATZERRITARRAK ELGOIBARREN

Udaleko arduradunek emandako datuen arabera, 716 atzerritar daude erroldatuta gure herrian; 405 gizon eta 311 emakume.



Bolivia: 160

Gizonezkoak: 62
Emakumezkoak: 98



Portugal: 103

Gizonezkoak: 69
Emakumezkoak: 34



Ekuador: 40

Gizonezkoak: 25
Emakumezkoak: 15



Maroko: 121

Gizonezkoak: 79
Emakumezkoak: 42



Pakistan: 45

Gizonezkoak: 41
Emakumezkoak: 4




Kolonbia: 36

Gizonezkoak: 17
Emakumezkoak: 19

Abdelhak Amaroïu

Tawasol elkarteko
sortzaileetako bat



“770 euroekin lau seme-alaba eta emaztea mantendu behar ditut”

Zenbat denbora daramazu Elgoibarren?

Lau hilabete inguru. Aurretik Ermuan bizi izan nintzen urtebetez, eta lehenago Bartzelonan. Hamabost urte daramatzat Espainian.

Non bizi izan zara gusturago?

Katalunia aldeko klima erosoa da, baina hemen ere ondo gaude. Toki bakoitzak xarma berezia dauka. Hala ere, Ermuan ez nintzen oso ondo egon. Atzerritar asko dago han, kultura asko nahasten dira, eta arazo gehiago izan genituen.

Zein da zure egoera gaur egun?

Emaztea eta lau seme-alabekin bizi naiz. Garbiketa enpresa batean egiten dut lan, eta 770 euroko soldata daukat familia mantentzeko. Zailtasun handiak: nire emazteak ez du lanik egiten, umeak zaindu eta etxeaz arduratzen da. Hala ere, ez dut gaizki ikusten emakumeek etxetik kanpo lan egitea.

Etorkizunari begira, zeintzuk dira zure asmoak?

Ez nuke nire herrialdera itzuli nahi, eta espero dut hemengo egoera ekonomikoa hobetzea.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Alde bakarreko biktimei omenaldia

Datorren larunbatean Elgoibarko udalak egingo duen biktimekiko ekitaldia dela eta, Ezker abertzaleak zera azaldu nahi du:

Penaz ikusten dugula, nola gure herriko alkateak, PPko zinegotziari behin eta berriz men eginez, berriro ere, alde bakarreko biktimei omenaldia antolatu duen. Honelako ekitaldiek Euskal Herrian bizi dugun gatazkaren ukazioan sakontzea biltzen dute: Euskal Herrian gatazkarik ez dela, ETaren "arazoa" baino.

Gaur, noiz enegarrenez saltzen ditugun bide polizialaren bidez ETaren bukatetik gertu gaudela (azken atxiloketak), horrelako ekimenak estrategia horren barruan kokatzen ditugu. Gatazkaren ukazioa eta bide polizial eta errepresiboen justifikazio eta eraginkortasuna saltzen dizkigute.

Espainiar estatuak eta frantses estatuak ez daukate arazo bat ETarekin, herri honekin baizik. Euskal Herriak ez dauka erabakitze eskubiderik onarturik eta eskubideen ukazio hori da herri honetara gatazka eta sufrimendua ekartzen dituen. Bitartean, gatazka bera ukatzen eta bide errepresibo eta polizialean sakontzen segitzen bada, emaitza zein izango den badakigu: alde guztietako sufrimendu gehiago, biktime gehiago...

Ezker abertzaleak behin eta berriz aldarikatu eta defendatu du gatazka hau gainditzea behar beharrezkoa dugula, eta hori negoziatio eta elkarriketatik baino ez dela etorriko. Alde guztietako sufrimendua

eta biktimekin bukatzeko bidea hori da, eta horri ekiteko ardura daukagu instituzio zein eragileok. Gainontzeko guztia gatazkaren luzamendua eta sufrimenduaren betiketzea elikatzea da, eta ekintza horrekin, hain zuzen ere, herritarren arteko zauriak areagotzea.

Hortaz, larria iruditzen zaigu PNV eta EAren jarrera, udalak era honetako omenaldiak antolatzean, alde bakarreko biktimei oroituz, beste askotan ezikusia egiten dutenean. Elgoibarren preso politikoek edota altxamendu faxistaren aurka gudan hildakoek ez dute inoiz, ez omenaldirik, ez eta interes agerpen duinik izan Udalaren partetik. Udalak ez luke inoiz ahaztu behar guztion ordezkari dela.

Elgoibarko Ezker abertzalea

OHARRA
Datorren barixakua
Maiatzaren Lehena
izango denez,
bezperan jasoko
duzue alea,
egunean.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Asier Orbea, Oier Narbaiza, Edurne Burgaña PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILEA Zalaoa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegi, Sugar Etxaniz, Arkaitz Iureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INFRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.750 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



Zuhaitz
Gurrutxaga

Aupa, Unai Ordena-
gailu aurrean zuri zer ida-
tzi ari nintzela, egongelaren bazte-
rean hautsa hartzen dagoen gitarrari egin diot so. Orain zortzi

bat urte ekin nion berau jotzeari, eta handik gutxira kantuak sortze-
ari ere bai. Abeslari izan eta diskaren bat ateratzea izan dut amets den-
bora askoan. Duela lau bat urte, ordea, Madrilén bizi nintzen garaian,
interpretazio eskola batean ibili nintzen, eta hurrengo denboraldian
Donostiako antzerki talde batean jardun nuen. *Goenkale*-n hasi eta
nork daki gero non, aktore izatea eduki dut jomugatzat beste uneka-
da luze batean. Bestalde, azken uda denboratan, Latinoamerika alde-
an pasatako oporraldi ororen bueltan, dena utzi eta bidaiari abentura-
zale bihurtzeko grina barnetik aldendu ezinda aritu naiz. Amets mor-
doa ukan dut gaztarooan zehar, Unai, baina, zailtasunagatik batzuk eta
adore faltagatik besteak, guztiak kimera hutsean gelditu dira.

“Etxea, lanpostu finkoa eta familia edukitzeko garaia da?”

Orain, 28 urte ditudan honetan, eta zuk Unai nire adin beretsua
duzun heinean, hara hemen nire galdera: etxea, lanpostu finkoa eta fa-
milia edukitzeko garaia da? Amets utopikook baztertu eta helburu *ga-
norazko*-etan pentsatzeko sasoia iritsi zaigu? Zaila egiten zait amets
guztiokin batzen nauen soka askatzea. Bidelagun nahi nituzke orain-
dik. Edota agian fresadore, sukaldari, mediku edo delineante izatea
amestu beharko nuke? Ez dakit, momentuz bertso eskolan apuntatu
naiz... ezetz asmatu? bertsolari izan nahi dut orain.



Unai
Arrieta

Galdera horiei erantzun bila, Estatu Batuar gazte baten istorioa datorkit gogora, Zuhaitz. Fa-
milia aberats batetako semea zen Christopher John-
son McCandless, ikasle paregabea, kirolari aparta. Uni-
bertsitatean graduatu ondoren, aurreztua zeukan dirua eta on-
dasun guztiak erakunde humanitario bati utzi zizkion. Motxila
bizkarrean, Alaskako basoetan barrena abiatu zen, bitzta
egonkor eta sosegatu bati bizkar emanez. Beti amestu izan
zuen bidaia zen hura. Esperientzia eta emozio transzendentalen
bila zihoan, gurasoek ezarri zioten bizimoduaren lotura-kateen-
gandik ihesi, askatasun bila.

“Motxila bete proiektu, motxila bete amets, ikusten zaitut, Zuhaitz”

Kirolari profesional askoren erretiroa garai zaila izaten da,
Zuhaitz. Urteetan kirolean gorputz eta arima aritu ondoren, us-
tekabeen, oraindik bitzta zabala aurretik dutela, denbora luzez
landutako gihar indartsuek bere izatearen zentzua galtzen dute.
Gauetik egunera kirolaria kirolari-ohi bilakatuko da, langabetu.
Ordura arte landu gabeko mundu berri baten aurrean aurkituko
da, zer egin eta zeri ekin ez dakiela.

Ez da hau zure kasua, Zuhaitz. Baloia ostikoz jotzeaz gain,
bertsolari, gitarra-jotzaile edo antzezle, motxila bete amets, mo-
txila bete proiektu ikusten zaitut. Agian bidaiari munduan barre-
na, agian zeure herrian erroturik, baina beti okupazioz eta boka-
ziaz beterik. Ez da gutxi!



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Eustat-ek emandako datuen arabera, euskaldunen %92,3k birziklatzen ditu papera eta plastikoak.

Badakazu zaborra birziklatzeko ohiturarik?



Ane Iriondo
34 urte, administraria

Bai. Papera, plastikoa eta kristala bereiztu egiten ditugu. Nire ustez ez da lan handia, baina lekua behar da etxean. Hala ere, iruditzen zait jendea ez dagoela oso kontzientziatuta gai honekin, eta askok zabor edukiontzietan dena nahastuta botatzen dute.



Urrategi Alzibar
47 urte, irakaslea

Bai. Etxean badaukagu zaborra banatu eta birziklatzeko ohitura, eta ikastetxean ere neu naiz birziklatzearen arduraduna. Behin ohitura hartuta, zaborra birziklatzea ez da lan handia. Guk ontziak egunero ateratzen ditugu, eta astean behin papera botatzen dugu.



Esti Begil
42 urte, torloju enpresako langilea

Bai, birziklatzeko zabor edukiontzia jarri zituztenean hasi ginen zaborra bereizten. Baserrian bizi gara, eta zaborra autoan eraman behar izaten dugu. Berdin zait poltsa bat ala lau atera. Nire ustez, egiten duguna baino gehiago birziklatu daiteke oraindik.



Alexander Alzaga
27 urte, langabetua

Bai. Plastikoa, papera eta gaintzeko zaborra bereizten ditugu. Gaur egun, gainera, etxe asko zaborra birziklatzeko prestatuta daude, eta ez dago arazorik. Nire inguruan jende gehienak birziklatzen du, uste dut jendeak kontzientzia hartu duela gai honekin.

LOLA SANCHEZ ESCRICH

Elgoibarko Herri Eskolako irakaslea



*Iribarre polita
Zure ezpainetan
Indarra eta kemena
Momentu zailetan.
Adoretsu, langile,
Laguna benetan
Beti egongo zara
Gure bihotzetan.*

*Guretzat izan zara
Eredu bikaina
Langile, lagun ona
Irakasle fina.
Irrifarrea ahoan
Indarra nahi haina
Emakume aparta
Eskolako arima.*

Aio, Lola

2009ko apirilaren 21an hil zen.

Elgoibarko Herri Eskolako lagunak.





Ermuaranbide kalean dauden zabor kontendeoreek usain txarra botatzen dute:

“Ermuaranbide kalean hiru zabor edukiontzi daude espaloi gainean, trenbidearen zubi azpian, eta oinezkoiei traba egiten die. Gainera, inguru horretan dagoen supermerkatu batetik arraina botatzen dutenean usain oso txarra egoten da ingurune guztian. Gainotzeko bizilagunok egiten dugun bezala, lur azpiko zabor edukiontziak erabili beharko litzukete”. Mankomunitateko kideen arabera, supermerkatu horrek egunez zabor kontenedoreak bere lokalean gordetzeko ardurua dauka. Bestalde, alboan dauden edukiontziak lur azpikoiei laguntzeko daude, baina kendu berri dituzte. Hala ere, lur azpiko edukiontziarekin nahikoa ez bada, berriz jarriko dituztela adierazi dute.



Herriko lorontzi eta berdeguneetako landareak moztu egiten dituzte: “Udaberrian oso politak egoten dira herriko lorontzi eta berdeguneak. Dena lorez eta kolorez beteta egoten dira, baina azkenaldian moztu egin dituztela konturatu naiz. Dena lurrez beteta lagatzen dute, eta landareak kaendu egiten dituzte. Arregitorre inguruan, behintzat, berdegune ederrak zirenak, orain zatartuta daude. Udaberrian ez lukete horrelako lanik egin behar”.



Txalo bero bat Gazte Martxan parte hartu zuten gazteei:

“Zorionak kontrol, euri, elur eta oztopo guztien gainerik Gazte Martxan parte hartu duzuen elgoibartar guztioi, Independentziaren aldeko hautu trinkoa eginez. *Gazte marxie, zoragarrix!*”.

Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
barren@elgoibar/koizarra.com / 943-74 41 12

ESKERTZA

JUANA BARRUTIA GABILONDO



2009ko apirilaren 16an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Eguneko Zentroko lanen bidez, bost lagun gehiagorentzako lekua egingo dute

Lanak maiatz erdialderako hasiko direla aurreikusten du Udalak

Eguneko Zentroa txiki geratu da, eta, ondorioz, handitze lanak egingo ditu Udalak. Gaur egun hamabost lagunentzako lekua dago Elgoibarko zentruan, eta lanak amaitu ondoren bost lagun gehiago sartuko dira: guztira, hogei. Eguneko Zentroa handitzeko, Jubilatuen Egoitzari kenduko zaio zati bat. Lanak maiatz aldera hasiko dituzte, eta Ikena 2001 enpresa izango da arduraduna. Obraren aurrekontua 67.038 eurokoa da.

Eguneko Zentroan hiru langile daude, eta horrez gain, beste bi lagun arduratzen dira herriko nagusiak King-Kong-eko zentzura eramateaz. Bestalde, Nerea Alberdi psikologoak koordinatzaile lanak egiten ditu. Nagusiek eguna pasatzen dute zentroan, goizeko 10:00etatik 18:00etara egoten dira han, eta besteak beste, eskulanak egiten dituzte. Gabonetan euren lanak jarri zituzten ikusgai, argazkian ikus daitekeen bezala.

Zaintzaileentzako ikastaroa

Bestalde, menpekotasun egoeran dauden pertsonenganako arreta eta haien



Nerea Alberdi psikologoak eta Eloisa Zubiaurre Ongizate zinegotziak zaharrek eginiko eskulanak erakusten, Eguneko Zentroan.

autonomia pertsonala sustatzeko zaintzaileentzako ikastaroa antolatu dute Ingema eta Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailak. Ikastaroa Kultur Etxeko sotoan emango dute hilaren 27tik 29ra, eta maiatzaren 4an, 6an eta 8an. Guztiak 15:00etatik

17:00etara. Jardunaldietan parte hartzen dutenek egiaztagiria jasoko dute. Ikastaroa doan da. Zaintze lana eta antolaketa, eta osasun fisikoa, psikikoa eta emozionala landuko dituzte ikastaroan, besteak beste.

Zenaydaren ametsa egia bihurtzen lagundu du Gemma Agirregomezkortak



Gaixotasun larria dauka Zenaydak, Gemma Agirregomezkorta elgoibartarraren lagun peruarrak; tumore gaizto bat fase terminalean. Gemmak eginiko gestioei esker, horrenbeste miresten duen Amaia Montero (La Oreja de Van Gogh musika taldeko abeslari ohia) ezagutzeko aukera izan berri du Zenaydak. Cuzcoko bere etxean –ezin da ohetik mugitu– jaso zuen bizipoza itzuli zion abeslari irundar ospetsuaren bisi-ta. Gemma Agirregomezkortaren laguntzaz, Zenaydaren ametsa egi bihurtu da.

Ekitaldia **Biktimei omenaldia**



Udalak errekonozimendu ekitaldia antolatu du ETA eta Komando Autonomo Antikapitalistek hildako biktimak gogoratzeko. Bihar, zapatua, izango da, eguerdiko 12:00etan hasita. Biktimen oroimenez, hamabost minutuko isilunea egingo dute Udaletxe aurrean, eta ondoren lore sorta bat lagako dute Gemikako Arbolaren landarearen ondoan, Giza Eskubideen parkean. ETAk eta Komando Autonomoek hildako sei pertsona elgoibartarrak eta Elgoibarren hildakoak omendu zituzten estreinakoz iaz. Bihar omenaldia bigarren aldiz errepikatuko dute.

Zenbakia **56.086**

Castrillejoren estankotan, Errosario kalean, zigilatutako Euromiloiaren txartel batek 56.086 euroko saria irabazi du. Txartel irabazlearen jabea elgoibartarra da, baina nortasuna ezkutuan gordetzea nahiago izan du. Joan zen barixakuko (apirilak 17) Euromillon zozketan bost zenbaki asmatu zituen elgoibartarrak, eta horri esker irabazi du 56.086 euroko saria.

Irudia **Sutea**

Paper-kartoiaren edukiontzi batek eta zabor-edukiontzi batek su hartu zuten joan den barixakuan, hilak 17, Antonio Arrillaga kalean. Sortutako ke beltzak eguna gau bihurtu zuen une batez, eta etxe bateko aurrealdea zeharo belztu arren, ez zuen kalte gehiago eragin. Sua 11:20 inguruan piztu eta 12:00ak ingururako kontrolpean zeukaten suhiltzaileek. Itzaltzen saiatu ziren lehenak, baina, inguruko obretan lanean zeuden langileak izan ziren. Sua nola piztu zen ikertu beharko dute orain arduradunek.



Elgoibarko langabetu kopurua %11,2 da

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) batez besteko langabezia tasaren (%12) azpitik dago Elgoibarko langabetuen kopurua (%11,2). Langabezia gehien duten herrien zerrendan, Elgoibar 65. postuan dago eta Mendaro 74.ean. Hain zuzen, zerrenda horretako lehen 53 herriek EAEko batez besteko langabezia tasa gainditzen dute, eta zortzik Espainiakoa baino langabezia tasa (%15,5) handiagoa dute.

1973koen kinto afaria

1973an jaio eta Elgoibarko Ikastolan ikasitakoak kinto afaria antolatzen ari dira. Maiatzaren 16an izango da afaria, eta izena emateko, Gipuzkoako Kutxako ondorengo kontu korrontean 25 euro ordaindu behar dira: 2101 0054 15 0012339156. Ordainketa egiteko azken eguna maiatzaren 4a da. Behin ordainketa egin da, izen-abizenak adierazteko mezu bat bidali behar da hurrengo helbide elektronikora: elgoibar1973@gmail.com.

'Ur bizia' Pastoral Barrutia eratuko dute bihar

Bihar, zapatua, Joan Maria Uriarte Donostiako gotzainak *Ur bizia* deituriko Pastoral Barrutia eraikiko du 19:00etan San Bartolome elizan egingo duten elizkizunean. Pastoral Barrutia honakoek osatzen dute: Soroluzeko Andra Maria Zeruratzek, Elgoibarko San Bartolomek, Altxolako San Joanek eta Garagartzako Sortzez Garbiak eta Elgoibarko Klarisatarren komunitateak.

Bestalde, Asis Sareak hileroko bilera egingo du datorren eguenean, hilaren 30ean, 19:30ean, Santa Klarako kaperan.

Informazio gehiago eskuratzeko asissarea@arantzazu.org webgunean edo deitu telefono honetara: 646 214 896.

Non ibiltzen zara gusturago, ikasgelan ala jolaslekuan?

Jolaslekuan.

Zertan?

Futbolean eta beste gauza batzuetan.

Klaseetan aspertu egiten zara?

Klasearen arabera... Batez ere txirula jotzen dugunean. Hor benetan asper-tzen naiz.

Bai ala? Txirula jotzea gauza polita da barren!

Ez.

Musika kontuetan ez zara trebea izango eta...

Ez da hori. Musika eskolan nabil, baina txirula ez dut gustuko.

Ikasle ona zara?

Bai, nota onak ateratzen ditut.

Zein duzu irakasgairik gustukoena?

Gimnasia.

Eskolatik kanpo zer egiten duzu?

Musika eskolan, dantzan, eskola-jokoetan, eskubaloian, saxofoia jotzen... eta hori.

Eta badaukazu jolasteko denborarik?

Bai.

Egiten duzunetik zer duzu gustukoen?

Eskubaloia.

Musika talde bat.

Ska-p.

Zein da zure ametsa?

Ez dakit... millonarioa izatea edo...

Zeri diozu beldurra?

Ez daukat beldurrik.

Buru gogorra zara?

Nahikoa.



Eztabaidan



Kafe-tertuliak

Gurasoak eta 5etik 12 urtera arteko umeak elkartuko dituen ekimena sortu berri du Gazte Informazio Guneak. Ekimen horren bidez, hainbat gairen inguruko eztabaida lasaia egingo dute, kafe baten inguruan. Atzo hasi ziren, sexualitatearen gaia-rekin.



ZER EGINGO ZENUKE ALA DINOREN LANPARA TOPATUKO BAZENU?

Oier Alberdi

7 urte

Gorde eta egunero garbitu. Magia egiteko eskatuko nioke, oporrak emateko, eta etxea garbitzeko.



Hasier Badiola

6 urte

Hau eskatu: gehiago jolastea, Port Adventurarako gutxiago pagatzea eta euri gutxiago egitea.



Unax Goñi

6 urte

Ez dakit. Lanpara ez nuke hartuko. Bertan laguko nuke. Jeinuari ez nioke ezer eskatuko.



Eider Cerdeira

7 urte

Desio bat eskatuko nioke: nire lagun baten etxera lotara joateko eskatuko nioke.



Maialen Laskurain

6 urte

Mahai batzuk lanak egiteko eta aulki bat eskatuko nizkioke. Hori bakarrik.



Irati Egaña

6 urte

Etxera eraman eta zaindu. Garbitu eta kutxa batean gordeko nuke. Orain ez dakit zer eskatu.



Arbelean

Udalekuetan izena emateko epea zabaldu du Atxutxiamaiak

Udalekuetan ondo pasatzeko aukera eskaintzeari ekin dio Atxutxiamaiak. Izena emateko epea aste honetan ireki da eta maiatzaren 8ra arte egongo da zabalik.

Batetik, udaleku irekiak antolatu dituzte uztailerako. Hau da, egunero joango dira umeak etxetik udalekuetara, goizez (9:00-13:00). Udaleku irekiak Haur Hezkuntzako umeentzat eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoentzat dira.

Bestetik, udaleku itxiak izango dira. Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailakoentzat Lizarrarako kanpinean egoteko aukera eskaini dute, uztailaren 21etik 29ra. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoak Mundakan izango dira uztailaren 3tik 12ra. Horrez gain, Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoentzat beste egonaldi bat ere antolatu dute Askizun (Getaria), uztailaren 13tik 20ra.

Informazio gehiago eskuratzeko, deitu 943 741 626 telefono zenbakira edo beste-lida idatzi atxutxiamaiak@elgoibarkoizarra.com helbidera.



Gure berbak

Hiztegixa (1)

Jorratu berri dogun aditzaren arluan ikusi dogu nola egitten daban mende-baldeko hizkeren aldera Elgoibarkuak batez ere; erdialdekoaren edo gipuzkeraren eragiñak badaukazela ere ikusi dogu (*det* Altzolan, *díot* eta ez *de(u)tsat* bezelakuak...).

Gauza bera gertatuko da hiztegixan ere; hemen, bi aldietako ezaugarriak topatuko dittugu, bizkaierarenak eta gipuzkerarenak. Batzuetan, alde batera egingo dau elgoibartarrak, beste batzuetan bestera, edo bixak erabiltzera ere bai.

Halaxe esan zaban Koldo Zuazok gure inguruko hizkeren gaiñian: Elgoibarrak, Mendarok eta Mutrikuk osatzen zeben hirukixak zubi-hizkerak zirala, bizkaieraren eta gipuzkeraren arteko zubi-hizkerak, ezin zirala hartu garbiki ez euskalki bateko eta ez besteko.

Horixe erakutsiko dogu hiztegixaren arluan ere: *abadia/apaiza, kortia/ukuillua, ortua/baratzia...* Horrelako bikoteen artian egingo dittugu aukerak, hala egin baleike, edo esango dogu bixak erabiltzen dirala.

Gazte jendiaerentzat, edo kalekuaerentzat, biharbada ezagunegixak ez dittuan hitzak edo berbak ekartzen ahaleginduko naiz: nola esaten diran txori-izenak, mamorro-izenak, basa-animalien izenak Elgoibarren; nola esaten diran landare- eta lora-izenak; baserriko tresnak nola esaten diran; adineko jendiak nola erabiltzen dittuan hillabetien izenak (*ilbeltza/enerua, maiatza/maietza, martzua/martixa, zemendixa/nobienbria...*).

Halako kontuak ekarriko dittut hona datorren astetik aurrera, azken urtietan egitten ari naizen Elgoibarko euskararen ezaugarritze honen azken urrats bezela.

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1950

Aste honetako erretratu zaharra herritar batek ekarri du. 1950. urteko Trinitate jaietan ateratako argazkia da. Ikusten den bezala, hiru emakume horiek dotore jantzi ziren, Trinitate eguna ospatzeko. Gaur egun ere, Trinitate jaiak garrantzi handia daukate Elgoibarren, eta festa giro aparta egoten da herriko kaletan. Gogora ditzagun beheko emakume horiek:

Ezkerretik eskumara: Mari Carmen Altzibar (†), Juanita Gabilondo (†) eta Lolita (†).



ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENen argitaratzeko
erretratu zaharrak baldin badituzu,
eskertuko genizuke gure erredakziora ekartzea.
Nafarroa Plaza 2, behea. 943 744 112 (Ainhoa)

Elgoibarren banatu dituzte Kiroljokoaren bi sari handienak

Kirol apustueta diharduen Kiroljokoa enpresak Elgoibarren banatu ditu orain arte emandako saririk handienak: martxoaren 7an, 6.000 euro irabazi zituen elgoibartar batek Kaia tabernan; apirilaren 2an, berriz, 4.100 euro eskuratu zituen norbaitek Lanbroan. Ekimena Euskal Autonomia Erkidego guztian zabaldua badago ere, Elgoibarren laga ditu, orain arte behintzat, saririk handienak.

Kirola eta kirolzaletasuna sustatzeko ekimen berria da Kiroljokoa, enpresako arduradunen arabera. Zaletuen arteko lehia oinarrituta dago. Era horretan, tabernetako zein apustu-etxeetako makinaren bidez, kirol zaletuek porretan parte hartu dezakete, elkarren aurka apustuak egin ditzakete, edota enpresaren beraren aurka.

Abuztu amaieran hasi zen Eibarko enpresa makinak jartzen Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko tabernetan. Momentuz 300 bat makina dauzka. Horrez gain, zortzi apustu-etxe ere zabaldu ditu.

Elgoibarren bi tabernatan daude apustu-makinak, eta biek eman dituzte ekimenak emandako saririk handienak. Kasualitatea den ala elgoibartarrak besteak baino apustuzaleagoak ote diren galdetzen du orain batek baino gehiagok.

Golx4 porran euro bat jokatu zuen 6.000 euro eskuratu zituenak. Horretarako, baina, ligako lau partiduren emaitzak bete bete asmatu behar izan zituen. 4.100 euro eskuratu dituenaren kasuan, berriz, bi euro jokatu zituen. Ekimenak eman dezakeen sari nagusia (30.000 euro hiru euroren truke) oraindik eman gabe dago.

Enpresaren arabera, ekimenak ez du ez loteriaren moduko jokoekin zerikusirik, ez eta makina-txanponjaleekin ere, kirolzaleen arteko lehia sustatzea duelako helburu. Hori dela eta, kirol jakin baten inguruko gorabeherak jarraitu ezean, apustua irabazteko aukera gutxi dago.



Karen Bastarrika elgoibartarrak Kiroljokoan egiten du lan.

Kirola ezagutu behar



Kirol makinetan jarduteko, kirola ezagutzea garrantzitsua dela nabarmendu du Karen Bastarrika elgoibartarrak. Bera Kiroljokoako apustu-etxeen arduraduna da. “Kiroljokoan ezagutzatik egin behar da apustua, kirol alorrean beti ere”, adierazi du. “Horrek asteburuetako partidei bizitasun handiagoa ematen die”, uste du. “Gainera ez dago apustu handirik egin beharrik”, dio.

Kiroljokoaren ekimenak gazteen artean izan du arrakasta handiena. Beharbada teknologia berrietara ohituago daudelako.

Herriko Antzokiko ikusle kopurua gutxitu arren, Kultura Batzordea pozik dago 2008ko emaitzekin

Gehien ikusi den pelikula *El niño con el pijama de rayas* izan da

Herriko Antzokiko zine ikusleen kopuruak behera egin du aurreko urtearekin alderatuz. 2008an 7.999 zine-ikusle pasa dira Herriko Antzokitik, 2007an baino 1.018 ikusle gutxiago. Hala ere, kontuan izanda aurreko urtean baino saio gutxiago egon direla 2008an, "normala" da ikusle kopurua ere txikiagoa izatea. "2008 urtean saio gutxiago egin ditugu, baina saioko ikusle gehiago etorri da", esan du Blanca Salegi kultura teknikariak. Zinea krisian dagoela nabarmena dela ere baieztatu du. Alabaina, itzaropentsu egoteko datu eta joerak ere antzeman dituzte.

"Filmak azkarrago iristen dira"

Zinea krisian dagoela onartu arren, Herriko Antzokira zinea ikustera joaten direnen kopuruak, irailetik hona, gora egin du, "eta hori, ez da gutxi bizi ditugun garaiotan" azaldu du Salegik. Zine eskaintzarekin bere horretan jarraitzeko egin zuten ahalegina

fruituak ematen hasi dela uste du. "Zine aretorik gabe geratu diren inguruko herrietako ikusle batzuk gureganatu ditugula uste dut. Beharbada, krisiak berak ere, elgoibartarrek zentro komertzial handietara zinea ikustera joateko zuten joera moteldu egin du. Sarrerak garestiagoak dira, eta bidaia ere, zein zentroan bertan egiten diren aparteko gastuen ondorioz, baliteke, elgoibartar batzuk zinea herrian ikusteko erabakia hartu edo berreskuratu izana".

Saio bakoitzeko ikusle kopuruaren gorakada film hobeak ekartzeko mesedegaria dela azaltzen du Salegik: "Zine areto gutxiago daudenez, azkarrago iristen dira filmak gurera, eta ikusle kopuruak gora egiten badu, kontratazioak ere bizkorrago egin ahal izango dira. Hortaz, elgoibartarrok gure herrian zinea ikustera joateko arrazoi bat baino gehiago daukagu", adierazi du.

Bestalde, "El niño con el pijama de rayas" filma izan da ikusiena 2008an; 434 lagunek ikusi zuten.

2001-2008 Herriko Antzokian

| URTEA | IKUSLE KOPURUA |
|----------------|----------------|
| 2001 | 19.030 |
| 2002 | 20.198 |
| 2003 | 15.986 |
| 2004 | 14.593 |
| 2005 | 10.066 |
| 2006 | 9.865 |
| 2007 | 9.017 |
| 2008 | 7.999 |
| GUZTIRA | 106.754 |

- ◆ 2008ko zine-ikusle kopurua: 7.999
- ◆ Pelikularik ikusiena:
 1. "El niño con el pijama de rayas" 434
 2. "Mamma mia" 355
- ◆ Gutxien ikusi dena:
 1. "10.000" 29



Elgoibarko Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa asteburuan



Datorren asteburuan Elgoibarko Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa jokatuko dute herrian. Lehiaketa egingo dute zortzigarren aldia izango da aurrengo. Bi hitzordu egin dituzte: zapatuan eta domekan. Adinaren arabera bi sailetan banatuta parte hartuko dute dantzariak, A eta B sailean. Lehenak zapatuan ariko dira, 16:30ean, Herriko Antzokian. B mailakoan txanda, ostera, domekan izango da, 11:00etatik aurrera Herriko Antzokian.

Uxue Alberdik eta Jon Eugik liburu bana aurkeztu dute aste honetan

Emakume zaharren istorioak bildu ditu Alberdik, eta piraten abenturak Eugik

Uxue Alberdi eta Jon Eugi idazle elgoibartarrek liburu bana aurkeztu dituzte aste honetan. Elkar argitaletxearekin kale-ratu du Uxue Alberdik bere estreinako eleberria: *Aulki-jokoa* deitzen da eta Joseba Jaka bekari esker idatzi du. Kostaldeko herri batean kokatua dago oraingoa: “80-90 urte dituzten pertsonaia batzuen bizitza kontatzen du: gaur egun kafetegi batean elkartzen dira, eta haien elkarriketak islatzen ditu liburua. Elkarriketa horiekin tartekatuta pertsonaia berberak ezagutuko ditugu haur, nerabe eta gazte ziren garaian”, azaldu du egileak. Lehenengo liburua 2007an argitaratu zuen Uxuek, *Aulki bat elurretan* izenekoa.

Jon Eugiren estreinako liburua

Jon Eugik, berriz, haur eta gazteentzako liburua idatzi du, eta aste honetan kaleratu du Erein argitaletxeak. *Piraten Uhartea* nobelak pirata euskaldun batzuek Karibe aldean izango dituzten gorabeherak kontatzen ditu. Irakurleak hamaika abentura bizi izango ditu haiekin: abordajeak, kartzela ihesak, urrezko altxor baten lapurreta... Kazetari eta idazle elgoibartararen estreinako liburua izan da, eta dagoeneko liburu dendetan dago.



Arrakasta handia eduki du Natalia Melladok Errusia eta Siberian



Natalia Mellado dantzari elgoibartarra bueltatu berri da Errusiatik. Hamazortzi egunetan Errusia eta Siberiako hamar hiritan aritu da dantzari elgoibartarra bere konpainiarekin. *Pasion* lana aurkezteko 7.000 kilometro egin ditu, gehienak trenez. Arrakasta handia lortu du flamenko ikuskizunarekin, eta nekaztuta buelta egin badu ere, bizi izandako esperientziarekin pozik dagoela ere azaldu du.

I. URTEURRENA

M^a PILAR ZABALETA AZURMENDI

2008ko apirilaren 26an hil zen.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan, apirilak 26, goizeko 11:30etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari.

Joango zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Aurtengo Jose Gurrutxaga krosean 600 ume inguruk hartuko dute parte

Jose Gurrutxaga krosa egingo dute hamaseigarrenez domekan, apirilak 26, . Elgoibar eta Mendaroko ikasleek parte hartzen duten lasterketa da, eta aurtan, 600 inguruk izango dira antxintxika egingo dutenak. Zazpi urtekoekin hasita, hamasei urte-tik gorakoek ere parte hartu ahal izango dute. Lehenengo lasterketa 10:30ean hasiko da. Izena emateko udaletxeko arkupeetara joan beharko da, egunean bertan; epea 10:30ean amaituko da.

Jaiotako urtearen arabera, lau txandatan parte hartuko dute lasterkariak. 10:30ean hasiko dira txikiak, eta 12:00etan azken taldea. Gainera, multzo bakoitzeko partaideek ibilbide ezberdina egin beharko dute.

12:30ak aldera, lasterketak amaitutakoan, sari banaketa egingo dute.



JOSE GURRUTXAGA



Jose Gurrutxagak 88 urte egingo ditu aurtan, eta urte mordoa daramatza saltaka egiten. Bere izena dauka domekan egingo duten krosak, eta hori “oso pozgarria” dela dio.

Zure izena daraman krosean 600 ume inguruk hartuko dute parte. Zer sentitzen duzu?

Hainbeste ume ikusten ditudanean poz handia hartzen dut. Krosak nire izena edukiko zuela esan zidatenean, gauza handia izan zen. Norbera bizi den bitartean izena jartzea, eta gainera umeekin... polita da. Ilusio handiarekin hasten dira lasterketan gainera.

Zuk zeuk antxintxika egiten jarraitzen duzu, Jose?

Orain footinga bakarrik egiten dut. 2007an Avilesen egon nintzen Espainiako txapelketa batean, eta ondo moldatu nintzen. Ez zait gustatzen esatea “irabazi” hitza: bigarren izanda galdu egiten da ala? Bueno, ba orain footinga egiten dut: egun bitik bat, ordu bat egunean. Bestela gorputza lotuta geratzen da.

Noiz hasi zinen korrika egiten?

Beti gustatu izan zait korrika ibiltzea eta soldadutzan ere korrika egiten nuen. Baina han luze, hamar kilometro inguru egiten genituen, eta ni ez nengoen ohituta. Gehiago gustatzen zait medio fondo deitutakoa: 800 eta 400 metrokoak.

Noiz arte egingo duzu lasterka?

Ahal den bitartean ibili egin behar dut korrika; edo korrika moduan behintzat. Lehen eguraldi ona eta txarrarekin irteten nintzen; orain txarra bada ez. Hala ere, azkenekoz joan den domekan ateri zegoela irteten nintzen, eta sekulako zaparradak harrapatu ninduen. Baina gustura: azkarrago korrika egitea eragin zidan-eta.

Eñaut Izagirre mendi eskiko junior mailako Euskadiko Txapelduna da

Joan den asteburuan egin du txapelketako azken proba

Joan zen domekan, mendi eskiko Euskadiko Koparako puntuagarria zen azken lasterketa jokatu zuten: Ral-li CEC. Katalunian izan zen, Conangles bailaran,. Eski denboraldia gogoz amaitzea nahi zuten 125 partaide elkartu ziren bertan. Horien artean, Eñaut Izagirre elgoibartarra ere bazen.

Goizeko zortziretan abiatu ziren lasterkariak eskiak eskuan zituztela. Lehenengo kilometroak korrika egin ondoren eskiak oinetan jarri eta 900 metroko desnibel positibo a igotzeari ekin zioten, pare bat korredore tartean izanik. Horrela, 2.800 metroko altuera zuen mendi bat igo ostean, 1100 metroko jaitsierarekin bukatu zuten.

Azkenean, Eñaut Izagirre elgoibartarra bigarren postua lortu zuen senior promesa mailako klasifikazio orokorrean.

Euskadiko kopa bost lasterketek osatzen dute eta lasterketa bakoitzean puntuak lortzen dira. 2009a zalantzarik gabe urte bikaina izan da Elgoibarko eskiatzaileentzat. Lasterketa honetan lortutako puntekin Euskadiko Kopako garailea da



Eñaut junior mailan. Kronoeskaladan, Eñaut Euskadiko txapelduna izan da junior mailan, eta Iñigo Lariz hirugarren.

Ruizek eta Reverttek marka onak egin dituzte: seigarren eta hamabigarren



Jon Revert



Antonio Ruiz

San Adriango Duatloia eta Gasteizko mendi-maratoia korritu dituzte gure lurretan joan den asteburuan. Bi antxintxikari elgoibartarrek, Urgaziko kideak biak, parte hartu zuten batean zein bestean; eta emaitza onak lortuaz, gainera. Jose Antonio Ruiz seigarren postuan sailkatu zen San Adriango duatloian eta Jon Revert, berriz, hamabigarren postuan Gasteizko mendi maratoian.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1- Alaves 0 (3. maila)

Vasconia 0 - Elgoibar 3 (Tx.)

ESKUBALOA

Cometel Elgo. 16 - Zarautz 30 (Sen. nes.)

Zarautz 13 - IMH Elgo. 41 (Kad. nes.)

Arrasate 34 - Alkorta Elgo. 33 (Sen. mut.)

Leizaran 36 - Pneumax Elgo. 20 (Kad. mut.)

Ikus Elgo. 10 - Pulpo 0 (Kad. nes.)

Lili Elgo. 26 - Lezo 18 (Inf. nes.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 25

15:45 Kenci - Ituriondo (Nazional B)

Domeka, 26

10:30 Xagua - Uda (Kad.)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 25

11:00 Elgoibar - Baskonia (Tx.)

17:00 Elgoibar - Zestoa (1. erreg.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 25

10:00 Txariduna - Egia (Inf. mut.)

11:30 Astigarraga - Ereintza B (Inf. nes.)

13:00 Bankoa - Urnieta (Inf. mut.)

17:30 Tecnifuelle - Ereintza (Sen. nes.)

19:00 Pneumax - Jauja (Kad. mut.)

Domeka, 26

17:30 IMH - Aloña Mendi (Kad. nes.)

Elgoibarko Hiria Saria jokatuko dute bihar

Bihar, zapatua hilak 25, Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta, Elgoibarko Hiria Saria txirindulari proba jokatuko dute. Jubenil mailako txirindulariek hartuko dute parte bertan. Irteera Plaza Handian egingo dute, 16:00etan, eta helmuga Santa Klara kalean egongo da. Guztira 86 kilometro egingo dituzte.

LANA

ESKAERA

• Emakumea garbiketa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. Edozein ordutan.

☎ **638 344 377**

• Neska pertsona nagusiak zaintzeko edota portalak, tabernak eta lokalak garbitzeko prest.

☎ **699 609 190**

• Emakumeak zerbitzari gisa (esperientziarekin), haurrak edo nagusiak ziantzen edota garbiketa lanak egiteko prest.

☎ **617 056 828**

• Emakume etxeko lanak egiteko prest.

☎ **943 74 32 51**

• Emakumea haur eta nagusiak zaintzeko eta portal eta lokalak garbitzeko prest. Eguneko edozein ordutan.

☎ **628 014 327**

• Gizona lanerako prest, garbiketa lanetan edo beste edozein lanetan.

☎ **666 215 426**

• Emakumea lanerako prest, tabernak garbitzen edo nagusiak zaintzen.

☎ **618 377 283**

• Emakumea lanerako prest, bai haurrak eta nagusiak zaintzen eta baita zerbitzari ere.

☎ **657 940 901**

• Emakumea garbiketa lanak egiteko, nagusiak zaintzeko edo umeak zaintzeko prest.

☎ **699 813 826**

• Emakume euskalduna, pertsona nagusi, hezindu eta gaixoak zaintzeko prest.

☎ **615 762 742 (Josefina)**

• Emakumea, etxeko lanak, garbiketa eta haurrak edo nagusiak zaintzeko prest.

☎ **646 235 195 / 636 362 251**

• Bi emakume, garbitzaile makina bereziekin alfonbra, bulego, etxeak, etab. garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe.

☎ **638 944 604 (Irene) / 695 708 271 (Itsaso)**

ESKAINZA

• Pertsona bat behar da egun bateko bilketa-lanak egiteko. ☎ **943 74 73 22**

• Zerbitzaria behar da esperientziarekin taberna batean lan egiteko. Elgoibarren. ☎ **652 778 210**.

• Pertsona bat behar da uztailen zehar klase partikularrak emateko goizez. ☎ **615 787 118**

• Gitarra. Flamenko edo elektrikoko klaseak Elgoibarren. Edozein estilotan inprobistazten ikasteko.

gurrutaka@yahoo.es ☎ **630 588 745**

• Sukaldari laguntzailea behar da. ☎ **943 743 196**

• Zerbitzaria behar da.

☎ **943 74 16 00**

• Ordenagailuak konpontzen ditut, etxez etxe. Oso prezio onean. ☎ **630 850 390**

ETXEBIZITZA

ALOKAGAI

• Conilen (Cadiz) apartamentua alokagai, 3 logela, terraza, bista onak eta garajea. Erdigunean. Igogailua.

☎ **653 733 457**

• Elgoibarren logela bat alokatu nahiko nuke.

☎ **664 118 757**

BESTELAKOAK

• Jaka bakeroa topatu dut Errotaberri plazan. Urdin iluna, 5 tallakoa eta Galder N.

☎ **678 117 022**

• Bikoteentzako ohea, gau-mahaia, somierra, 135eko koltxoia eta 90eko oherako somier lamina berriak saltzen dira. Dena 160 euro eta mikrouhin-labea opari.

☎ **678 117 022**

• Etxeko altzariak, etxetresna elektrikoak, ohe-erropa (izarak, mantak, edredoiak, koltzak), gortinak eta alfonbrak.

☎ **676 444 171**

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero *barren.iragarkilaburak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak

Astebete : 5 euro

2 aste : 8 euro

3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

Astebete : 10 euro

2 aste : 17 euro

3 aste : 25 euro



sigma

jatetxea
kafetegia

DESPEIDAK - KINTOAK
BATAIOAK - JAUNARTZEAK

MENUA

- ➔ Pintxoak
- ➔ Plater Konbinatuak
- ➔ Tortillak
- ➔ Ogitartekoak
- ➔ Errazioak

Bazkarien ordutegia: 12:30 - 15:30
Afarrien ordutegia: 20:30 - 22:30

Astelchenetik larunbatera zabalik
Astelchen arratsaldea eta igandea itxita
(kontsultatu igandeetan erreserbak egiteko)



• Zorionak, **Nere!** Ahizpa Ane, lagun Aritz eta Maialenen partez.



• Zorionak, **Unax**, hilaren 28an urtebete egin duzulako. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Ion**, bihar 11 urte egingo dituzulako. Jainire, Maitane eta etxekoak.



• Zorionak, **Ana**, 8 urte egin dituzulako. Lolita, Nerea eta familiakoan partez.



• Zorionak, **Beñat**, 3 urte egin dituzulako. Gurasoen eta Xabiren partez.



• Zorionak, **Ibarre Txiki**, 3 urte egin dituelako. Muxu bat familiakoan partez.



• Zorionak, **Onintza**, 6 urte egin dituzulako. Gurasoen eta Eiderren partez.




• Gonbidapenak egiteko adina iritsi da! Zain gaituzu! Zorionak etxekoan partez.



• Zorionak, **Oihane**, 9 urte egin dituzulako. Familiakoan eta Ainhoaren partez.



• Zorionak, **Ela eta Constantinol** Muxu handi bat familiakoan partez.



• Zorionak, **Narrea eta aitaboi** Muxu asko, familiakoan partez.



• Zorionak, **Maren**, 4 urte egin dituzulako. Etxekoan eta Noraren partez.



• Zorionak, **Roke**, 8 urte egin dituzulako. Amama Nekane, aita, Patxi, Elene eta Manexen partez.



• Zorionak, **Jon eta Lucia**, 4 urte egin dituzulako. Familiakoan partez.



• Zorionak, **Galdar**, 3 urte egin zenituzulako. Ixa-ixa Oier harrapau dozu.



• Zorionak, **Pelusi!** Muxu eta besarkada haundi bat kuadrilakoan partez.



• Zorionak, **Eritz**, 5 urte egin dituzulako. Muxu bat familiakoan partez.




• Zorionak, **Iraitz**, 4 urte egin dituzulako. Muxu bat gurasoen partez.



• Zorionak, **Paula**, gaur zure eguna delako. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Unax**, 5 urte egin dituzulako. Maddi, Ane eta familiakoan partez.



• Zorionak, **bikote**, sei urte egingo dituzulako. Muxu bana etxekoan partez.



• Zorionak, **Uraltz**, 8 urte egin dituzulako. Garazi, Narrea eta etxekoan partez.




• Zorionak, **potxola!** Aurten bi arrazoitu dituzu ospatzeko! Koadrillakoan partez.



• Zorionak, **Iker**, 3 urte egin dituzulako. Muxu bat gurasoen partez, guapo!




• Zorionak, **Haitzart**, 4 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta Laienen partez.



• Zorionak, **Mirari**, Ermuko familiakoan partez. 27 muxu handi!



• Zorionak, **Nagore**, 10 urte egin dituzulako. Muxu bat etxekoan partez.



• Zorionak gure **hirukotetxoar!** Pillo bat maite ziatuztegu! eta ongi, ongi pasa zuen Fes-tan. Ama eta aita



• Berandu baina, zorionak laukote! Txokolatezko muxu bat ikastolako laguneren partez.

OHARRA

Maiatzetik aurrera agurrak kobratu egingo ditugu. **Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukotea edo handiagoa: 5 euro.** Datorren asterako norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **martitzen eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu **BARRE**neko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OKINDEGIA

24 domeka **EIZAGIRRE**

FARMAZIAK
24 ORDUZ

- 24 Etxeberria (Errosario)
- 25 Ibañez
(*Goizez Etxeberria SA)
- 26 Ibañez
- 27 Garitaonaindia-Bidasolo
- 28 Etxeberria (Santa Ana)
- 29 Fernandez
- 30 Yudego
- 1 Garitaonaindia-Bidasolo

Ibañez
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO
GEHIAGO:

Egin klik



www.elgoiBARREN.net



24 barixakua

Zinea

22:00 Zine-foruma

Haizeak antolatuta, *Amigas a la fuerza* pelikula ikusteko aukera izango da. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

25 zapatua

Feria

9:00-13:30 Azken zapatuko feria

Baserriko produktuen salmenta, ganadu erakusketa eta salmenta, eta eguerdian herri kirolak. Zaldi Proba izango da Eibarko Urkiaga eta Urrietako Azkonabietaren artean. Trikitilariak alaituko dute giroa. Nafarroa Plazan.

Ate irekiak

11:00 IMHko ate irekiak

Heziketa zikloetako eta ingeniarrizta eskolako ate irekien eguna izango da IMHn.

Oroimen ekitaldia

12:00 Biktimak oroimenean

Udalak antolatuta, ordu laurdeneko isilaldia egingo da ETAK eta Komando Autonomek hildako biktimen omenez. Giza Eskubideen parkean.

Kirola

16:00 Txirrindulari lasterketa

Lagun Taldeak antolatuta, Elgoibarko Hiria Saria proba izango da jubenil mailakoentzat. Irteera Plaza Handian.

Dantza

16:30 Aurreku eta soinu zahar txapelketa

Elgoibarko neska mutilek aurreku eta soinu zahar txapelketan hartuko dute parte. Herriko Antzokian.

Meza

19:00 Pastoral Barutia

Juan Maria Uriarte Donostiako gotzainak Ur Bizia Pastoral Barutia eraikiko du San Bartolome parrokan.

26 domeka

Kirola

10:30 Haur krosa

Elgoibar Ikastolak antolatuta, Jose Gurrutxaga haur krosa izango da herriko kaleetan. Irteera, Plaza Handian.



GAZTELEKUKO EKINTZAK

- BARIXAKUA 24**
Wii txapelketa 17:00
- ZAPATUA 25**
Arratera irteera eta parrillada 10:00
- DOMEKA 26**
Topagunea 17:00
- MARTITZENA 28**
Eskulanaka 17:00
- EGUAZTENA 29**
Txoko pribatua 17:00
- EGUENA 30**
Ordenagailuak 17:00



LUDOTEKAKO EKINTZAK

- BARIXAKUA 24**
Talde jolasak 17:30
- ASTELEHENA 27**
Ping-pong txapelketa 17:30
- MARTITZENA 28**
Irakurketa txokoa 16:30
- EGUAZTENA 29**
Amaren egunerako eskulana 17:30
- EGUAGENA 30**
Jolas librea 16:30

«La clase»
Ongarri zinekluba
24, barixakua: 22:15

«El luchador»
Ongarri zinekluba
25, zapatua: 19:00/22:15
26, domeka: 19:00
27, astelehena: 21:30

«Cuscus»
Ongarri zinekluba
28, martitzena: 21:30
30, eguena: 21:30

«Vals con Bashir»
Ongarri zinekluba
29, eguaztana: 21:30



Dantza

11:00 Aurresku eta soinu zahar

txapelketa

Elgoibarko neska mutilek aurresku eta soinu zahar txapelketan hartuko dute parte. Herriko Antzokian.

27 eguena

Erakusketa

18:00 Abiadura Handiko Trena

Erakusketa ikusteko azken eguna. Kultur Etxean, 21:00ak arte.

29 eguaztena

Ikus-entzunezkoa

21:30 'Elgoibartarrak Peruko mendikate zurian'

Morkaikok antolatuta, sei elgoibartarrek Peruko mendietan egindako esperientzia kontatuko dute. Musika Eskolako auditorioan.

30 eguena

Bilera

19:30 Asis Sarea zoriontasunaren bila

Hilero bezala, azken eguenean, batzarra egingo dute Asis Sareko kideek. Santa Klarako kaperan.



Gure gomendioa

Azken zapatuko feria

Apirilak 25, zapatua, 9:00etan

Hileko azken zapatuko feria egingo da bihar Nafarroa Plazan. Udaberrian sartzearekin batera, herri kirolen itzulera izango da nobedade nagusia: Eibarko Urkiagaren eta Urrietako Azkonabietaren arteko zaldi proba jokatu da Nafarroa plazan, eguerdiko 12:30ean hasita. Aurreko edizio batean, Santos astoak ginoen kontra egin zuen lehia (argazkian). Bestalde, baserriko produktuak erosi eta ganaduak ikusi edo erosteko aukera izango da. Trikitilariak alaituko dute giroa.



Lanbroa



**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 - Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06



klinika kortazar

Oftalmologia pediatrikoa

Gidabaimenak eta armabaimenak

Errebal, 14 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)

Te. 943 700 700 / 943 203 835



klik - klak

mireia lamariano

Lotsagabea zara?

Pixka bat, baina ez gehiegi.

Zure aurreneko muxua espero bezalakoa izan zen?

Ez! Beste modu batekoa espero nuen.

Zenbat aldiz begirutzen duzu zeure burua ispiluan etxetik irten aurretik?

Behin, eta justu-justu! Beti presaka ibiltzen naiz.

Zertarako nahiko zenuke gizona izan?

Hilekorik ez edukitzeko, batez ere. Baina, bestela, neska izanda pozik nago.

Gizonak eta emakumeak berdinak dira, zure ustez?

Alor horretan lan handia dago egiteko oraindik.

Gizaki perfektuak zein ezaugarri izan beharko lituzke?

Perfektua ez izatea.

Ikustezina bazina, zer egingo zenuke?

Azterketak aurrez ikusi! Besteek nitaz zer pentsatzen duten jakiten ere saiatuko nintzateke, baina gehiegi jakitea ere askotan ez da ona.

Ezkonduta ala elkarrekin bizi?

Elizatik ez behintzat! Bestela, egoera legezatzeko paperak egiteko ez daukat arazorik.

Neskak eta mutilak izan daitezke lagunak?

Bai, lagun asko ditut mutilak, eta oso onak, gainera.

Zure bertute bat?

Oso alaia naiz! Beti umore onean egoten naiz, abesten eta pozik. Akaso ingurukoentzako astuna izan daiteke, baina nik oso ondo pasatzen dut.

Eta defektu bat?

Buruari buelta asko ematen dizkiot. Arazo bat baldin badaukat, gehiegi larritzen naiz.

Hitz egitea ala entzutea duzu nahiago?

Biak ditut gustuko, bakoitza bere momentuan.

Zein famatu azaltzen da zure fantasietan?

Inor ere ez, ez naiz idolo zalea izan.

Bizi izandako esperientzietatik zerekin geratzen zara?

Batxilergoarekin. Bi urte hauek oso onak izan dira, eta pena ematen dit Institutua lagatzeak. Hala ere, Unibertsitate garaia oso polita dela esan digute irakasleek, eta ilusioz nago. Gasteizen ikasiko dut kirol magisteritza, eta etapa berriari pozik ekingo diot.

AISIALDIKO HEZITZAILEAK BEHAR DIRA UDALEKUETAN LAN EGITEKO


◀ Begirale titulua eta esperientzia eskatzen da.

Curriculumak bidaltzeko

E-posta: aisia.euskalduntzen@elgoibarkoizarra.com

Telefonia: 943 741 626 (Idoia)

Azken eguna: Apirilak 29



AISIALDIKO KOORDINATZAILEAK BEHAR DIRA UDALEKUETAN LAN EGITEKO

◀ Koordinatzaile bezala esperientzia eta ibilgailu propioa izatea eskatzen da. (Zuzendari titulua izatea baloratuko da).

Curriculumak bidaltzeko

E-posta: aisia.euskalduntzen@elgoibarkoizarra.com

Telefonia: 943 741 626 (Idoia)

Azken eguna: Apirilak 29





Pello Zabalaren *Eguraldia beti airean* liburua

'Ez dago eguraldiak dantzaratuko ez duenik: Txorriak, hegaztiak, animalabokoak eta zizareak, zapoak zein arnariarmak, aziendak nahiz aziendadunak, abereak bezala aberats eta pobreak, haur eta gazte, arso ta agure, aitajaiun nahiz amandre... airean beti eguraldia, eta airearen baitan gu guztioak temple onenean bezala ez hain onean ere...

Euria izan ohi da, hoberoak lagunduta, gehien inporta zaiguna, nola ez? Baina, eurilaren aurretik, presoak, haizeak, euri garraioa hodeiak... moida handiboa dauka euritara initsi aurretik: egon balta, nonbait, beste bako arrazoirik, euria bera, euri jasa edo zaparrada bat, ez balta biteren merkea. Gainera, euria gertutik kusten dugun aronpe horren sekretuak nahi nitzizuke arakartzen eta sartzen lagundu, hemenbe bertan, dozerendi ataletan.'



Nola eskuratu liburua?

1.- ZURE KARTILLA ESKURATU

Apirilaren 25ean, larunbata, BERRIarekin.

2.- KUPOIAK ITSATSI

Apirilaren 25etik aurrera, egunero kupoia argitaratuko dira BERRIAN, guztira 4.

3.- Kartilla osatutakoan, kioskora eraman eta, handik bi astera, kiosko berean izango duzu liburua, 3,90 €-ren truke jasotzeko.

Ipar Euskal Herriko irakurleek ez duzue kartilla bete behariko, biziak eta zuzenean deitu behariko duzue Harpidetza Saileko telefonora: (0034) 943-30 43 45.

Apirilak 25, larunbata **kartilla eta 1. kupoia berriarekin**



HARPIDEDUNENTZAKO OHARRA:

Nahikoa izango duzue **943-30 43 45** telefonora deitzea edo www.berria.info webgunean izena ematea, eta 3,40 €-ren truke etxean jasoko duzue liburua.

Babeslea:

 **kutxa**

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz

berria

LA SALLE AZITAIN IKASTETXEA

2009-2010 ikasturterako eskaintza

BATXILERGOAK (A eta D)

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA / GIZARTE ZIENTZIAK

**Badugu
ikasteko
leku bat
zuretzati!**



943 121 698

maiatzaren
4tik 8ra